

# Begiaren atzean: Mary Oliver

— — — — —  
ANE GARCIA LOPEZ

Poemen zuzenketa: Joannes Jauregi Benavides

Whitmanen bidetik heldu zitzaigun Mary Oliver XX. mendean, eta, hala, naturari eta kontenplazioari emandako poeta estatu-batuarren tradizioari jarraipena eman zion mende berrian. Ingurunearen behaketari emandako poeta izan zen bera ere, eta haren poesiak eguneroko natura eta jainkoa izan zituen ardatz. Gurean aski ezaguna izan ez arren, AEBn arrakasta izugarria izan dute haren lanek; salduenen artean egon da urte luzez, eta ezizen txeratsua jaso du: «AEBko poetarik maitatuena». Lehen begiratuan, haren poesia ia aspergarria da, eta ia diot, hitz horretantxe baitago aldea: eguneroko bideetan barrena, aldiro zerbait berria ikusteko gaitasuna duen poeta da.

Mary Oliver 1935ean jaio zen, Ohio-ko landa-auzune batean. Haurtzaro zailak bultzatu zuen naturan barneratzera eta idaztera, eta literatur egarriak New Yorkera eramanean zuen gaztetan, Edna St. Vincent

Millay poetaren ahizparentzat idazkari-lanak egitera; bien artean, poeta zenaren paperak antolatzen eman zituzten 6-7 urte. 1950eko hamarkadan ezagutu zuen Molly Malone Cook argazkilaria, hura hil artean bikotekide izango zuena. Elkarrekin New England<sup>1</sup> deituriko eskualdera joan ziren bizitzera. Hain zuzen, paisaia berdez eta naturgune zabalez betetako tokia da hura, eta poetak lotura estu-estua izan zuen bizileku berriarekin; haren poesia da horren erakusgarri argia.

2019an zendu zen arte, idazle oso oparoa izan zen Oliver. Hogeita hamar poemaliburutik gora argitaratu zituen (bildumak tarteko), baita lau saiakera-liburu ere. Hogeita zortzi urterekin plazaratu zuen lehen alea, *No Voyage, and Other Poems*, 1963an, eta, 1970eko hamarkadaren amaieratik aurrera, gutxi gorabehera bi urtez behin liburu bat kaleratzeko ohitura hartu zuen. Nabar-

---

1. Deitura hori baliatzen da AEBko ipar-ekialdeko sei estatuk osatzen duten eskualdea izendatzeko. Hauek dira estatuak: Connecticut, Maine, Massachusetts, New Hampshire, Rhode Island eta Vermont.

mentzekoak dira *American Primitive* (1983) eta *Dream Work* (1986) lanak. Lehenarekin, Pulitzer Saria irabazi zuen, eta, bigarrenean, salbuesenez, natura albo batera utzi gabe, giza harremanetan eta bere bizitza pertsonalaren alde ilunetan egin zuen murgil.

Oliverren kasuan, garrantzitsua da azpimarratzea zer paisaia motak inguratu zuen egunerokoan. Izan ere, gorago esan bezala, hori izan zuen lehengai poesia idazteko. Whitmanekin, arestian aipatu bezala, eta Thorearekin edo are Emily Dickinsonekin alderatu izan dutenek igarri diote erromantizismo zantzurik poetari, ez baitu ia jartzen mugarik beraren eta naturaren artean. Horren erakusle dira sorta honetako «Erreinuan sartzea» poemako lerrook: «Nire bizitzako ametsa / da ibai mantso baten alboan etzan / eta zuhaitzetako argiari begiratzeari / ikastea zerbait ezer izan gabe / une batez: soilik / atentzioaren lente aberatsa». Oliverren poema hori enegarrenez irakurtzean, gogoan lotu zaizkit haren hitzak eta Joseba Sarrionandiak «Ene begiek» poeman adierazitako nahia: «mendea eta bigarrendua gurutzatzen diren lekua, / lekua besterik ez izan». Testigu isil eta ikusezin izateko nahi bat ageri da Oliverren poetika osoan.

Haatik, eta erromantizismoak gure hiztegian izan lezakeen konnotazioa nabartze aldera, azpimarratzekoa da natura ez dela ageri idealizatuta; itxuraz behintzat, bere horretan eskaintzen digu Oliverrek ingurunea: batzuetan eder, besteetan krudel eta ilun. Mehatxua eta miraria da aldi berean, betiere miragarria den hori jasotzeko prest dagoen lente sinestunarentzat. Poema asko naturan gertatutako aldaketa txiki batekin hasten dira: zerbait mugitu edo aldatu da

paisaian, eta hari horretatik tiraka mami-tzen da poema. Oliverren poemek epifania sotil eta geldo bat eragiten diote irakurleari, ohartu ere egin gabe. Lore bat zabaltzen den une zehatz eta ezdeus bezain argigarri hori harrapatuko balute bezala da.

Feminismoak kritikatu izan dio emakumetasuna eta natura lotzeko joera esentzialista, baina, egia esan, ez zaio itxurakeriarik igartzen. Eta, haren garai bertuko poeta emakumeen artean gai politikoagoak eta iraultzaileagoak jorratzen zituztenak bazaudenez (tartean, jada euskararenak diren Adrienne Rich, Audre Lorde edota June Jordan), Mary Oliver bezalako poeta kontenplatibo eta itxuraz naifago batek badu lekua anizkun aldarrikatu behar dugun «emakume» kategoria horretan.

Ziur asko, Oliverren arrakasta ez da kasualitatea, eta zerikusia izango du haren idazkera itxuraz sinplearekin. Erraz irakurri eta, beraz, erraz kontsumi daiteke. Sare sozialetan argazki ñoño samar batez lagundurik ederki asko ematen duten esaldiak jasotzen ditu haren poesiak. Baina ez nuke esango komertzial izateko idatzi zuenik.

Nire ustez, Oliverrek asmatu zuen ukitzen edo aurkitzen mundu hiperazeleratu honetan askok eta askok nahi genukeen hori: paseoak lasai ematea, txoriak behin eta berriz ikustea etorri eta joaten, landareak nola hazten diren entzutea... Hala-ko bizitzara erretiratzeko prest ez dauden horientzat, leiho bat da Oliverren poesia; ustez jada existitzen ez den eta hala ere oraindik hortxe dagoen munduarekin egiten du bat, eta zurrumurru bat sortzen du, dei egiten digu «antzara basatien antzera», eta iragartzen digu «gauza guztiek osatzen

duten familian» oraindik ere badugula leku bat.

Ni neu dei horren atzetik heldu nintzen haren poesiara, sorta hau zabaltzen duen «Antzara basatiak» irakurri ostean. Kuriosoa da zerk eraman dezakeen itzultzaile bat autore konkretu bati hitzak ebatsi eta ematera. Ez baitugu zerikusirik Mary Oliverrek eta

biok, ez idazkeran, ez interesetan. Une batzuetan, are, zaila egin zait neureganatzea, eta arrotzu egin zait prozesuan zehar. Ez dakit lortu ote dudan harrapatzea. Uste dut baduela zerbait garrantzitsua esateko, uneoro galtzen dugun hori atzera ematen digula bueltan, baina ez dakit nola egiten duen zehazki.

### **Wild Geese**

You do not have to be good.  
You do not have to walk on your knees  
for a hundred miles through the desert repenting.  
You only have to let the soft animal of your body  
    love what it loves.  
Tell me about despair, yours, and I will tell you mine.  
Meanwhile the world goes on.  
Meanwhile the sun and the clear pebbles of the rain  
are moving across the landscapes,  
over the prairies and the deep trees,  
the mountains and the rivers.  
Meanwhile the wild geese, high in the clean blue air,  
are heading home again.  
Whoever you are, no matter how lonely,  
the world offers itself to your imagination,  
calls to you like the wild geese, harsh and exciting -  
over and over announcing your place  
in the family of things.

### **Three Things to Remember**

As long as you're dancing, you can  
    break the rules.  
Sometimes breaking the rules is just  
    extending the rules.

Sometimes there are no rules.

### **Antzara basatiak<sup>1</sup>**

Ez duzu zertan ona izan.  
Ez duzu zertan ehunka kilometro ibili  
basamortuan zehar belauniko, damuan.  
Zure gorputzeko animalia leunari  
maite duena maitatzen utzi behar diozu.  
Hitz egidazu etsipenaz, zeurez, eta nik neurez hitz egingo dizut.  
Bitartean mundua aurrera doa.  
Bitartean eguzkia eta euriaren harritxo argiak  
paisaiaz paisaia dabilta:  
soro zabal eta zuhaitz sakon,  
mendi eta ibaien gainetik.  
Bitartean antzara basatiak, zeru urdin garbian gora,  
etxera doaz berriro.  
Edonor zarela ere, edonolakoa zure bakardadea,  
munduak bere burua eskaintzen dio zure irudimenari,  
antzara basatien antzera egiten dizu dei, indarrez eta gogoz,  
eta zure lekua aldarrikatzen du behin eta berriz  
gauza guztiak osatzen duten familian.

### **Gogoan gordetzeko hiru gauza**

Dantzan jarraitzen duzun artean, hautsi  
ditzakezu arauak.  
Batzuetan arauak haustea ez da  
arauak luzatzea baino.  
  
Batzuetan ez dago araurik.

---

1. Poema honen itzulpenaren bertsio bat *Lekore* aldizkariaren o. alean argitaratu zen lehenengoz, 2015ean.

**Sometimes**

I.

Something came up  
out of the dark.  
It wasn't anything I had ever seen before.  
It wasn't an animal  
                  or a flower,  
unless it was both.

Something came up out of the water,  
                  a head the size of a cat  
but muddy and without ears.  
I don't know what God is.  
I don't know what death is.

But I believe they have between them  
                  some fervent and necessary arrangement.

2.

Sometimes  
melancholy leaves me breathless.

3.

Later I was in a field full of sunflowers.  
I was feeling the heat of midsummer.  
I was thinking of the sweet, electric  
                  drowse of creation,

when it began to break.

### **Batzuetan**

1.

Zerbait erne zen  
iluntasunetik.  
Aurretik ikusi gabe nuen.  
Ez zen animalia bat  
edo lore bat,  
ezpada biak.

Zerbait erne zen uretatik,  
katu baten tamainako buru bat  
baina lohitsu eta belarririk gabea.  
Ez dakit zer den Jainkoa.  
Ez dakit zer den heriotza.

Baina uste dut badutela  
akordio sutu eta beharrezko bat.

2.

Batzuetan  
malenkoniak arnasarik gabe uzten nau.

3.

Geroago eguzki-lorez betetako sail batean nengoen.  
Uda beteko beroa sentitzen nuen.  
Gogoan neukan kreazioaren lo-kuma  
goxo, elektrikoa,

eta hausten hasi zen.

In the west, clouds gathered.  
Thunderheads.  
In an hour the sky was filled with them.

In an hour the sky was filled  
with the sweetness of rain and the blast of lightning.  
Followed by the deep bells of thunder.

Water from the heavens! Electricity from the source!  
Both of them mad to create something!

The lightning brighter than any flower.  
The thunder without a drowsy bone in its body.

4.

Instructions for living a life:

*Pay attention.*

*Be astonished.*

*Tell about it.*

5.

Two or three times in my life I discovered love.  
Each time it seemed to solve everything.  
Each time it solved a great many things  
but not everything.  
Yet left me as grateful as if it had indeed, and  
thoroughly, solved everything.

6.

God, rest in my heart  
and fortify me,  
take away my hunger for answers,  
let the hours play upon my body

like the hands of my beloved.



Mendebaldean, hodeiak bildu ziren.  
Ekaitz-hodeiak.  
Ordubeteren buruan hartua zuten zerua.

Ordubeteren buruan hartua zuten zerua  
          huriaren gozotasunak eta tximistaren zartadak.  
Trumoiaren kanpai astunak heldu ziren atzetik.

Zeruetako ur! Iturriko elektrizitate!  
Biak zerbait sortzeko irrikaz!

Edozein lore baino argiago tximista.  
Hezur lokartu bakar bat ere ez trumoiak gorputzean.

4.

Bizitza bat bizitzeko argibideak:

*Adi egon.*

*Harritu zaitez.*

*Konta ezazu.*

5.

Bizitzan bi edo hiru aldiz deskubritu dut maitasuna.  
Aldiro dena konpontzen bide zuen.  
Aldiro gauza asko konpondu zituen  
          baina ez dena.  
Eta esker onez uzten ninduen halere,  
dena konpondu izan balu bezala.

6.

Jauna, etzan nire bihotzean  
eta emadazu indarra,  
eraman nire erantzun-gosea,  
utzi orduei nire gorputzean jolasten

nire maitearen eskuak bezala.

Let the cathead appear again—  
the smallest of your mysteries,  
some wild cousin of my own blood probably—  
some cousin of my own wild blood probably,  
in the black dinner-bowl of the pond.

7.

Death waits for me, I know it, around  
    one corner or another.  
This doesn't amuse me.  
Neither does it frighten me.

After the rain, I went back into the field of sunflowers.  
It was cool, and I was anything but drowsy.  
I walked slowly, and listened

to the crazy roots, in the drenched earth, laughing and growing.

Ager bitez dibidietak berriro—  
zure miseriarik txikienak,  
nire odoleko lehengusu basaren bat ziurrenik—  
nire odol basako lehengusuren bat ziurrenik,  
urmaelaren katilu beltzean.

7.

Heriotza dut zain, badakit, izkina  
batean edo bestean.  
Ez dit graziarik egiten.  
Ez dit beldurrik ematen ere.

Euriaren ostean, atzera joan nintzen eguzki-loreen sailera.  
Epel zegoen, lozorroa urrun.  
Astiro ibili nintzen, eta entzun nituen

erro zoroak, lur blaituan, barrez eta hazten.

**How Would You Live Then?**

What if a hundred rose-breasted grosbeaks  
flew in circles around your head? What if  
the mockingbird came into the house with you and  
became your advisor? What if  
the bees filled your walls with honey and all  
you needed to do was ask them and they would fill  
the bowl? What if the brook slid downhill just  
past your bedroom window so you could listen  
to its slow prayers as you fell asleep? What if  
the stars began to shout their names, or to run  
this way and that way above the clouds? What if  
you painted a picture of a tree, and the leaves  
began to rustle, and a bird cheerfully sang  
from its painted branches? What if you suddenly saw  
that the silver of water was brighter than the silver  
of money? What if you finally saw  
that the sunflowers, turning toward the sun all day  
and every day—who knows how, but they do it—were  
more precious, more meaningful than gold?

**Nola biziko zinateke orduan?**

Eta ehun mokozabal papargorri  
zure buruaren inguruan biraka ariko balira hegan? Eta  
mimus-txori bat zurekin etxean sartu eta  
zure aholkulari bilakatuko balitz? Eta  
erleek eztiz beteko balizkizute hormak eta  
eskatze soilarekin beteko balizute  
katilua? Eta erreka toa muinoan behera baletor  
eta zure logelako leiho ondotik igaroko balitz zuk entzun zenitzan  
haren otoitz mantsoak lokartu artean? Eta  
izarrek oihukatuko balituzte beren izenak, edo hasiko balira  
hara-hona korrika hodeien gainetik? Eta  
zuhaitz baten irudia pintatuko bazenu eta hostoak  
karraskan hasiko balira, eta txori batek alai abestuko balu  
haren adar pintatuetatik? Eta bat-batean ikusiko bazenu  
uraren zilarra argitsuagoa dela diruaren zilarra  
baino? Eta azkenean ikusiko bazenu  
eguzki-loreak, egun osoz eta egunero eguzkirantz  
biratzen diren horiek –nork jakin nola, baina egunero lortzen dute–,  
baliotsuagoak, esanguratsuagoak direla urrea baino?

**Snow Geese**

Oh, to love what is lovely, and will not last!

What a task  
to ask

of anything, or anyone,

yet it is ours,  
and not by the century or the year, but by the hours.

One fall day I heard  
above me, and above the sting of the wind, a sound  
I did not know, and my look shot upward; it was

a flock of snow geese, winging it  
faster than the ones we usually see,  
and, being the color of snow, catching the sun

so they were, in part at least, golden. I

held my breath  
as we do  
sometimes  
to stop time  
when something wonderful  
has touched us

as with a match  
which is lit, and bright,  
but does not hurt  
in the common way,  
but delightfully,  
as if delight  
were the most serious thing  
you ever felt.

### **Elur-antzarak**

Ai, maitagarria eta efimeroa dena maitatzea!  
Hau lana  
galdegiteko

ezeri, inori

halere gure-gurea baita,  
une oro eta etengabe, eta ez aldian-aldian.

Udazken egun batez aditu nuen  
nire gainetik, eta haizearen orratzaren gainetik, soinu bat  
ezezaguna, eta gora joan zitzaidan begirada, gezi; bazen

elur-antzaren saldo bat, hegaka  
ikusi ohi ditugunak baina azkarrago,  
eta, elurraren kolorea zutenez, eguzkia harrapatzen zuten

beraz, partez bederen, urrekarak ziren. Nik

arnasari eutsi nion  
noizbehinka  
egiten dugun moduan  
denbora gelditzeko  
zoragarria den zerbaitek  
ukitu gaituenean

pospolaarekin egiten dugun moduan  
piztu eta arrai denean  
baina ez mingarri  
era arruntean,  
baizik eta gozo  
gozamina balitz bezala  
inoiz sentitu duzun  
gauzarik serioena.

The geese  
flew on.  
I have never  
seen them again.

Maybe I will, someday, somewhere.  
Maybe I won't.  
It doesn't matter.  
What matters  
is that, when I saw them,  
I saw them  
as through the veil, secretly, joyfully, clearly.

### **Can You Imagine?**

For example, what the trees do  
not only in lightning storms  
or the watery dark of a summer night  
or under the white nets of winter  
but now, and now, and now—whenever  
we're not looking. Surely you can't imagine  
they just stand there looking the way they look  
when we're looking; surely you can't imagine  
they don't dance, from the root up, wishing  
to travel a little, not cramped so much as wanting  
a better view, or more sun, or just as avidly  
more shade—surely you can't imagine they just  
stand there loving every  
minute of it; the birds or the emptiness, the dark rings  
of the years slowly and without sound  
thickening, and nothing different unless the wind,  
and then only in its own mood, comes  
to visit, surely you can't imagine  
patience, and happiness, like that.



Antzarek  
hegaka segitu zuten.  
Ez ditut egundo  
berriz ikusi.

Agian ikusiko ditut, noizbait, nonbait.  
Agian ez.  
Ez du axola.  
Kontua da  
ikusitu nituenean  
errezelaren bestaldetik bezala  
ikusitu nituela, ezkutuan, alai, argi.

### **Imajina dezakezu?**

Adibidez, zer egiten duten zuhaitzek  
ez soilik tximista-ekaitzetan  
edo uda-gau bateko iluntasun urtsuan  
edo neguaren sare zurien azpian  
baizik eta orain, eta orain, eta orain –edonoiz,  
begira ez gaudenean. Jakina, ezin duzu imajinatu  
hortxe daudenik zutik gu begira gaudenean  
duten itxura berberaz; jakina, ezin duzu imajinatu  
ez dutenik dantzarik egiten, errotik goraino, apur bat  
bidaiatzeko irrikaz, ez horrenbeste estu sentitzen direlako,  
baizik eta bista hobe bat dutelako gura, edo eguzki gehiago, edo soilik  
itzal gehiagoren egarria dutelako; jakina, ezin duzu imajinatu haiek  
hantxe daudenik une oro  
maitatzen; txoriak edo hustasuna, urteen  
eraztun ilunak astiro eta isil  
mardultzen, eta dena berdina salbu eta haizea,  
eta hura ere nahieran soilik etortzen da  
bisitan, jakina, ezin dituzu imajinatu  
pazientzia, eta zoriona, horrela.

**From the Book of Time**  
(poemaren zati bat)

7.

Even now  
I remember something

the way a flower  
in a jar of water

remembers its life  
in the perfect garden

the way a flower  
in a jar of water

remembers its life  
as a closed seed

the way a flower  
in a jar of water  
steadies itself  
remembering itself

long ago  
the plunging roots

the gravel the rain  
the glossy stem

the wings of the leaves  
the swords of the leaves

**Denboraren liburutik**  
(poemaren zati bat)

7.

Orain ere  
gogoratzen dut zerbait

ur-pitxerrear den  
lore batek nola duen

bere bizitza gogoan  
lorategi perfektuan

ur-pitxerrear den  
lore batek nola duen

hazi itxia zeneko  
bizitza gogoan

ur-pitxerrear den  
lore batek nola duen  
bere burua finkatzen  
bere burua gogoan

aspaldi  
sustrai murgildua

hartxintxarra euria  
kimu distiratsua

hostoen hegalk  
hostoen nabalak

rising and clashing  
for the rose of the sun

the salt of the stars  
the crown of the wind

the beds of the clouds  
the blue dream

the unbreakable circle.

### **Rice**

It grew in the black mud.  
It grew under the tiger's orange paws.  
Its stems thinner than candles, and as straight.  
Its leaves like feathers of egrets, but green.  
The grains cresting, wanting to burst.  
Oh, blood of the tiger.

I don't want you just to sit down at the table.  
I don't want you just to eat, and be content.  
I want you to walk out into the fields  
where the water is shining, and the rice has risen.  
I want you to stand there, far from the white tablecloth.  
I want you to fill your hands with the mud, like a blessing.

gora eta talka  
atzitu nahian eguzkiaren arrosa

izarren gatza  
haizearen koroa

hodeien oheak  
amets urdina

zirkulu hautsezina.

### **Arroza**

Lohi beltzean hazi zen.  
Tigrearen atzapar laranjen pean hazi zen.  
Kandelak baino meheagoak haren zurtoinak, kandelak bezain zuzen.  
Lertxuntxoan lumak bezalakoak haren hostoak, baina berdeak.  
Goia jotzen aleak, lehertu nahian.  
Ai, tigrearen odola.

Ez dut nahi zu besterik gabe mahaian esertzerik.  
Ez dut nahi zu besterik gabe jan eta asetzerik.  
Zu soroetara ateratzea nahi dut  
bertan dir-dir ari baita ura eta hazi baita arroza.  
Zu han egotea nahi dut, mahai-zapi zuritik urrun.  
Zure eskuak lohiz betetzea nahi dut, bedeinkazio batean bezala.

### **The Sunflowers**

Come with me  
    into the field of sunflowers.  
        Their faces are burnished disks,  
            their dry spines

creak like ship masts,  
    their green leaves,  
        so heavy and many,  
            fill all day with the sticky

sugars of the sun.  
    Come with me  
        to visit the sunflowers,  
            they are shy

but want to be friends;  
    they have wonderful stories  
        of when they were young—  
            the important weather,

the wandering crows.  
    Don't be afraid  
        to ask them questions!  
            Their bright faces,

which follow the sun,  
    will listen, and all  
        those rows of seeds—  
            each one a new life!—

### **Eguzki-loreak**

Zatoz nirekin  
    eguzki-loreen sorora.  
        Haien aurpegiak disko landuak dira,  
            haien bizkarrezur lehorrek

barkuetako masten kirrinka dagite,  
    haien hosto berdeek,  
        horren astun eta ugari,  
            eguna betetzen dute

eguzkiaren azukre likatsuaz.  
    Zatoz nirekin  
        eguzki-loreak bisitatzera,  
            lotsatiak dira

baina lagun nahi zaituzte,  
    istorio zoragarriak dituzte  
        gazte garaikoak:  
            eguraldiaren garrantzia,

beleak noraezean.  
    Ez izan haiei  
        galderak egiteko beldur!  
            Haien aurpegi argiek,

eguzkiaren atzetik dabilzala,  
    entzun egingo dizute, eta  
        hazi-lerro horiek denak–  
            bizi berri bat da bakoitza!–

hope for a deeper acquaintance;  
each of them, though it stands  
in a crowd of many,  
like a separate universe,

is lonely, the long work  
of turning their lives  
into a celebration  
is not easy. Come

and let us talk with those modest faces,  
the simple garments of leaves,  
the coarse roots in the earth  
so uprightly burning.



harreman sakonago baten esperantzan daude;  
haietako bakoitza, beste hainbaten  
artean badago ere,  
unibertso bereizi bat balitz bezala,

bakarrik baitago, haien bizitzak  
ospakizun bihurtzearen  
lan luzea  
ez da erraza. Zatoz

eta hitz egin dezagun aurpegi apal horiekin,  
hostoen jantzi sinpleekin,  
lurrean horren zintzo erretzen diren  
erro latzekin.

### **Entering the Kingdom**

The crows see me.  
They stretch their glossy necks  
In the tallest branches  
Of green trees. I am  
Possibly dangerous, I am  
Entering the kingdom.

The dream of my life  
Is to lie down by a slow river  
And stare at the light in the trees—  
To learn something by being nothing  
A little while but the rich  
Lens of attention.

But the crows puff their feathers and cry  
Between me and the sun,  
And I should go now.  
They know me for what I am.  
No dreamer,  
No eater of leaves.

### **Erreinuan sartzea**

Beleek ikusten naute.  
Haien lepo distiratsuak luzatzen dituzte  
zuhaitz berdeetako  
adarrak altuenetan. Ni  
arriskutsua izan ninteke, ni  
erreinuan sartzen ari naiz.

Nire bizitzako ametsa  
da ibai mantso baten alboan etzan  
eta zuhaitzetako argiari begiratzea—  
ikastea zerbait izan gabe ezer  
une batez: soilik  
atentzioaren lente aberatsa.

Baina beleek lumak harrotu eta karraka egiten dute  
nire eta eguzkiaren artean,  
eta joan egin beharko nuke orain.  
Ondo dakite zer naizen.  
Ez ameslari,  
ez hosto-jale.

### **Resumen**

Mary Oliver (1935-2019) continuó el camino que en el siglo XIX comenzaron poetas estadounidenses como Walt Whitman, dados a la contemplación y a la naturaleza. Siguiendo los pasos de esa tradición, Oliver tejió sus poemas observando la naturaleza y reconociendo la amenaza y el milagro que percibía en su seno, y fue una autora tan prolífica como querida. Su materia prima yace en los cambios más sutiles y en apariencia insignificantes, y nos ofrece las epifanías más minúsculas, como si captaran el momento preciso en que una flor se abre, un momento tan insignificante como revelador. Esta breve antología recoge algunos de sus poemas en euskera.

### **Résumé**

Mary Oliver (1935-2019) poursuit la voie de poètes américains du XIX<sup>e</sup> siècle, contemplatifs et aimant la nature, tel que Walt Whitman. Sur les pas de cette tradition, Oliver a écrit ses poèmes en observant la nature et en témoignant de la menace et du miracle qu'elle percevait en son sein. Elle a été une autrice aussi prolifique qu'appréciée. Elle sa matière première se trouve dans les changements les plus subtils et apparemment insignifiants, et elle nous offre d'infimes épiphanies, qui capteraient l'instant précis où une fleur s'ouvre, un instant aussi insignifiant que révélateur. Cette courte anthologie rassemble quelques-uns de ses poèmes en basque.

### **Abstract**

Poet Mary Oliver (1935-2019) followed the path laid in the 19<sup>th</sup> century by contemplative and naturalistic US poets such as Walt Whitman. Following that tradition, Oliver wove her poems by observing nature and recognizing the threat and miracle she sensed in her womb, and she was an author as prolific as she was beloved. She found her raw material in the most subtle and seemingly insignificant changes, and offers the tiniest epiphanies, as if they could capture the precise moment when a flower opens, a moment as insignificant as it is enlightening. This short anthology includes some of her poems in Basque.